



EGILE ESKUBIDEEN IKASGELA

AIPUAK



Iturri bateko testua aipatzea

- Testu bat erabil daiteke
 - zeharka, hau da, testu bati erreferentzia eginez
 - edo zuzenean, hau da, haren zati bat aipatuz.
- Aipu bat txertatzen denean, iturri-testuaren edukia jatorrizko testuan bezalaxe mantendu behar da:
 - Testuaren mezua ez da desitxuratu behar, eta ez zaio aldatu behar tonua. Gainera, aipamen hori zati batera mugatu behar da, eta zati hori irakaskuntza- edo ikerketa-xedeetarako bakarrik erabili ahalko da. Beti adierazi behar dugu egilearen izena eta zein iturritatik lortu dugun zati hori.

Erreferentzia edo zeharkako aipua

- Erreferentziatzat hartzen dugu gauza edo eduki bat geure hitzekin adieraztea.
- Erreferentzia bat egitean, garrantzitsua da ondo ulertzea testua zeri buruzkoa den.

– Adibidez:

Manuelek dio plagioa legez kanpoko dela.

Manuelen arabera, plagioa legez kanpoko da.

- Jatorrizko testu bati erreferentzia egitean, ez da egin behar baloraziorik.

Manuelek uste du [baina ez daki seguru] legez kanpoko dela plagioa.

Zuzeneko aipua

- Zuzeneko aipu batek jatorrizko testua hitzez hitz idaztea esan nahi du.
- Zuzeneko aipuak komatxo artean ematen dira.
- Zuzeneko aipamenak dagoeneko zabaldua dagoen lan baten zati batera mugatu behar du; irakaskuntza- edo ikerketa-xedeekin egin behar da beti, eta egilearen izena eta iturria adierazi behar dira.
 - Adibidez:
 - Hau esan du Manuelek: «Plagioa legez kanpoko da».
 - «Plagioa legez kanpoko da», esan du Manuelek.

Baimendutako aipua

1. Aipatutako baldintzak betez gero, aipu idatziak, entzunezkoak edo ikus-entzunezkoak erabil daitezke, baita izaera plastikoa edo fotografiko figuratiboa duten lan isolatuak ere, betiere dagoeneko zabaldua dauden lanenak badira.
 - Aipuaren hedadura zati batera mugatu behar da, eta txertatze horren xedeak justifikatzen duen neurriraino.
2. Aipamenak lotura egokia izan behar du testuarekin berarekin.
 - Aipuak ilustratu edo argitu egiten du aztergaia.
3. Gogoratu: adierazi egilea eta iturriak!



Plagioa

- Baldin eta
 - beste testu bat iturria edo egilea adierazi gabe aipatzen baduzu
 - beste testu hori zeurea balitz bezala aurkezten baduzu, baimenik gabeko aipamena egingo dugu: hau da, plagioa.
- Beste lan baten plagioak –hots, baimenik gabe erreproduzitzeak– obraren egile-eskubideak urratzen ditu.

